

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **273/2016 Foru Agindua, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoan hazitarako patatak ekoizten diren guneeetan birosi arriskua arintzeko dirulaguntzetarako deialdia, 2014-2015 eta 2015-2016 kanpainak**

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 16ko 57/2010 Dekretuaren bidez onartu ziren Arabako Lurralde Historikoan hazitarako patatak ekoizten diren guneeetan birosi arriskua arintzeko dirulaguntzen oinarri arauak.

Dekretu horren 5. artikulua xedatzen duenez, urtero laguntza deialdi bat onartuko da. Deialdian, eskaerak aurkezteko epea adieraziko da, eta dirulaguntzak emateko erabiliko den kreditua zehaztuko.

Kreditu bat hornitu da, 10.000,00 eurokoa, Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.00.479.00.05 partidan.

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak, 2016ko abuztuaren 9an, txostena eman zuen, proposatuz dirulaguntzetarako deialdi bat onartzea Arabako Lurralde Historikoan hazitarako patatak ekoizten diren guneeetan birosi arriskua arintzeko, 2014 -2015 eta 2015-2016 ekitaldietarako. Deialdia 57/2016 Foru Dekretuan jasotzen diren oinarri arautzaileek arautzen dute (57/2016 Foru Dekretua, azaroaren 16koa, 2010eko azaroaren 24ko ALHAO 134 zenbakikoan argitaratua).

Ikusirik aginduzko txostenak, haien bitartez, eta nire eskumeneko ahalmenak baliatuz

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoan hazitarako patatak ekoizten diren guneeetan birosi arriskua arintzeko dirulaguntzetarako deialdia, 2014-2015 eta 2015-2016 kanpainetarako, zeina azaroaren 16ko 57/2010 Foru Dekretuan jasotzen diren oinarriek arautzen baitute.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak kreditua erreserbatu dezala, 10.000,00 euroko zenbatekoarekin, Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko partida honetatik: 40.1.1.42.00.450.00.01., "Hazitarako patata baztertua", xedapen-erreferentzia: 16.1.16.105.../000; zilegi izango da kreditu hori gehitzea, deialdia ebatzi aurretik, betiere Dirulaguntzen Lege Orokorrek ezarritako mugen barruko zenbateko gehigarrien bidez, bai eta edozein arrazoirengatik aurrekontu partidan kreditua gehituz ere.

Hirugarrena. 2016. urtean, eskaerak aurkezteko epea 20 egunekoa izango da, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 18a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTALORA**